

5331

101/2007 DEKRETUA, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

Urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen. Erregelamendu horrek garatu egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen printzipio eragileak, hau da, askatasuna, erantzukizuna eta malgutasuna, ordura arte nagusi ziren murrizketei aurre eginez. Dekretu horrek, gainera, errespetatzen ditu fundazio bakoitzaren nahia eta jarduteko autonomia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zeregina baita Babeslaritzaren bidez interes orokorra babestu eta berrezartzeko beharrezko mekanismoak ezartzea.

Aipatutako urriaren 18ko 404/1994 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritza zein Erregistroa batera arautu zituen. Hala ere, batzuk nahiz besteak helburu desberdinak dituzte, printzipio ezberdinetan oinarritzen dira eta, beraz, oso arau desberdinak aurkezten dituzte.

Hori dela-eta, ikuspuntu sistematikotik eta arauak onartzeko teknikaren ikuspuntutik, egokiago jo da bakoitza dekretu-mailako arau desberdin baten bidez onartzea. Era horretan, fundazioen Babeslaritzari eta Erregistroari dagozkien funtzioak argiago zehazten dira.

Erregelamendu berri honen berrikuntzen artean, honako hauek dira aipagarriak:

Fundazioen Erregistroaren eraginkortasuna zehatz garatzen da, Erregistroaren oinarritzko printzipioak zehaztuz: Legaltasuna, Legitimazioa, Lehentasuna, Erregistroaren segidako Traktua eta Publizitate materiala eta formala.

Fundazioen Erregistroa kudeatzeko sistema berria ezartzen da, Erregistroaren Liburuetan oinarritutakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari segurtasun eta eraginkortasun handiagoa emateko asmoz. Honako liburu hauek daude: Fundazioen inskripzio Liburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legearen eragin-eremutik kanpoko fundazioen ordezkartzen inskripzio liburua.

Fundazioek erabili beharreko izendapena zehatzago arautzen da. Araubide juridiko horrek segurtasun handiagoa ematen dio trafikiko juridikoari, fundazioen izenak nolakoak izan behar diren zehaztu, eta beste fundazio batzuekin edo beste pertsona juridiko edo pribatu batzuekin nahastea saihesten baitu.

Fundazioen kontabilitate-liburuak gaitzeko eta legeztatzeko araubidea malgutu egiten da, Fundazioen

5331

DECRETO 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Mediante Decreto 404/1994, de 18 de octubre, el Consejo de Gobierno Vasco aprobó el Reglamento de Organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco. Este Reglamento, en desarrollo de los principios inspiradores de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, basados en criterios de libertad, responsabilidad y flexibilidad frente a las restricciones hasta entonces imperantes, supuso un adecuado equilibrio entre el respeto a la voluntad fundacional y a la autonomía de funcionamiento de estas entidades en relación con los necesarios mecanismos de defensa y restablecimiento del interés general que corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del Protectorado.

El citado Decreto 404/1994, de 18 de octubre, regulaba de manera conjunta tanto el Protectorado como el Registro de Fundaciones del País Vasco. Sin embargo ambos persiguen finalidades diversas, están inspirados en principio diferentes y, en consecuencia, presentan un contenido normativo sustancialmente distinto.

Por ello, se ha considerado más correcto desde un punto de vista sistemático y de técnica normativa que su regulación apruebe en normas distintas con rango de Decreto. De esta manera se contribuye además a una mejor clarificación de las funciones que corresponden, al Protectorado y al Registro de Fundaciones.

Entre las novedades más destacables de este nuevo Reglamento cabe señalar las siguientes:

Se desarrolla detalladamente la eficacia registral del Registro de Fundaciones a través de la determinación de los principios básicos registrales: Legalidad, Legitimación, Prioridad, Tracto sucesivo registral, y Publicidad material y formal.

Se establece un nuevo sistema de llevanza del Registro de Fundaciones basado en los Libros del Registro, en orden a otorgar mayor seguridad y eficacia del Registro de Fundaciones del País Vasco. Se distinguen los siguientes Libros: Libro de inscripción de fundaciones, Libro de inscripción de delegaciones de fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la Ley de Fundaciones del País Vasco.

Se establece una regulación más detallada de la denominación a utilizar por las fundaciones. Dicho régimen jurídico aporta mayor seguridad al tráfico jurídico, al determinar cómo debe ser la denominación de las fundaciones y evitar confusión con otras fundaciones u otras personas jurídicas, públicas o privadas.

Dentro del régimen de habilitación y legalización de los Libros de contabilidad de las fundaciones se es-

Erregistroak gaitu beharreko liburuak orri mugikorrez osatuta egotea onartzen baita eta, era horretan, kontabilitatea informatika bidez kudeatzea errazten da.

Fundazioak desagertzeko araubide zorrotzagoa ezartzen da, fundazioa likidatzearen ondoriozko likidoa fundatzaileak edo, hala badagokio, fundazioaren gobernu-organismoak ezarritako interes orokorreko helburuak betetzeko erabiltzen dela bermatzeko. Fundazioaren idazpenen eta inskripzioaren ezeztatzea gauzatu aurretik, Fundazioen Babeslaritzak likidazio-eragiketarako onartu beharko ditu.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40.4 artikulua eta Azken Xedapenetatik bigarrena garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeari eta interesa duten gainerako organoei entzun ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaur-laritzaren Kontseiluak 2007ko ekainaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen da; dekretu honen eranskinean dator erregelamendu hori.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jarri baino lehen hasitako espedienteak momentu horretara arte indarrean egongo diren xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Maila bereko edo apalagoko xedapenak indargabeturik geratuko dira, baldin eta dekretu honetan gai honen inguruan ezarri denaren kontrakoak badira eta, bereziki, urriaren 18ko 404/1994 Dekretuan jasotakoak badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari dagokionez; 404/1994 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zen.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Erregelamendua garatzea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak hartzeko.

establece un régimen más flexible al permitir que los Libros a habilitar por el Registro de Fundaciones se encuentren formados por hojas móviles, lo que facilita la llevanza de la contabilidad por medios informáticos.

Se establece un régimen más rígido en la extinción de la fundación, con el fin de que el resultante de la liquidación fundacional sea destinado efectivamente a los fines de interés general establecidos por el fundador o por el órgano de gobierno de la fundación, en su caso. La cancelación de los asientos de la fundación y de la inscripción fundacional sólo se produce una vez que el Protectorado de Fundaciones ha aprobado las operaciones de liquidación.

En su virtud, en desarrollo del artículo 40.4 y la Disposición Final Segunda de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, oída la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco y demás órganos interesados, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de junio de 2007,

DISPONGO:

Artículo único.— Se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, que se adjunta como anexo al presente Decreto.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los expedientes iniciados antes de la entrada en vigor de este Decreto se tramitarán y resolverán con arreglo a las disposiciones vigentes hasta dicho momento.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que en esta materia contradigan o se opongan al presente Decreto, y, en especial, las contenidas en el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco, en lo que hace referencia al Registro de Fundaciones del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

Bigarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau 2007ko urriaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 19an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

EKAINAREN 19KO 101/2007 DEKRETUAREN
ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDA-
ZIOEN ERREGISTROAREN ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FUNDA-
ZIOEN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA, IZAERA
ETA EGINKIZUNAK

1. artikulua.– Babeslaritza eta Erregistroa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren helburuak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeak araututako fundazioei aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea eta horien kontrola eramatea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 36. artikuluan ezarritako eginkizunen artean, Fundazioen Babeslaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren ardura hartuko du bere gain.

3.– Erregelamendu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa arautzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 36.2.b eta 40. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua.– Antolaketa administratiboa eta izaera.

1.– Erregistro horrek izaera juridikoa du eta zerbitzu publikoa da, nola herritarrentzat, hala bertan izena eman nahi duten erakundeentzat.

2.– Erregistroak honako sekzio hauek ditu, euren xedea kontuan hartuz fundazio bakoitzari ematen zaion sailkapenaren arabera:

a) Lehenengo Sekzioa: irakaskuntza eta ikerketan aritzen diren fundazioak.

b) Bigarren Sekzioa: ongintza-sorospeneko eta lan-arloko fundazioak.

c) Hirugarren Sekzioa: kultura, gazteria eta kirol-fundazioak.

d) Laugarren Sekzioa: gainontzeko fundazioak.

Segunda.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día 1 de octubre de 2007.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

ANEXO AL DECRETO 101/2007,
DE 19 DE JUNIO

REGLAMENTO DEL REGISTRO DE
FUNDACIONES DEL PAÍS VASCO

CAPÍTULO I

ORGANIZACIÓN, CARÁCTER Y FUNCIONES
DEL REGISTRO DE FUNDACIONES
DEL PAÍS VASCO

Artículo 1.– Protectorado y Registro.

1.– El Protectorado de Fundaciones del País Vasco tiene como finalidad el asesoramiento, apoyo técnico y control de las fundaciones reguladas por la Ley 12/1994, de Fundaciones del País Vasco.

2.– El Protectorado de Fundaciones tiene entre sus funciones previstas en el artículo 36 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, la llevanza del Registro de Fundaciones del País Vasco.

3.– El presente Reglamento tiene por objeto la regulación del Registro de Fundaciones del País Vasco previsto en los artículos 36.2.b y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco.

Artículo 2.– Organización administrativa y carácter.

1.– El Registro tiene carácter jurídico y se configura como un servicio público para los ciudadanos y las ciudadanas, y para las entidades interesadas en acceder al mismo.

2.– El Registro consta de las secciones que se señalan a continuación, según la diferente clasificación que por finalidades se otorgue a cada fundación:

a) Sección Primera: comprende las fundaciones docentes y dedicadas a la investigación.

b) Sección Segunda: comprende las benéfico-asistenciales y laborales.

c) Sección Tercera: comprende las fundaciones culturales, juveniles y deportivas.

d) Sección Cuarta: comprende las restantes.

3.– Fundazioei dagokien sekzioa zehazteko, fundazio baten sailkapenari buruzko zalantza izanez gero, fundatzaileak eratze-aktan edo estatutuetan ezarritakoa hartuko da aintzat.

4.– Sekzio bakoitzaren barruan azpi-sekzio bat egongo da, eta bertan Fundazioei buruzko Legearen eragin-eremutik kanpoko fundazioek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten ordezkariak eta egoitzak inskribatuko dira, lege horren Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraiki.

3. artikulua.– Justizia-arloko eskumena duen saila.

1.– Justizia-arloko eskumena duen sailburuari dagokio fundazioak eratzeko, bat egiteko eta desagertzeko inskripzioei buruzko ebazpenak ematea, bai eta estatutuak aldatzeari buruzkoak ere.

2.– Justizia-arloko eskumena duen saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariari dagokio inskripzioei buruzko gainontzeko ebazpenak ematea, bai eta Erregistroko gainerako eginkizunei buruz eman beharrekoak ere.

3.– Justizia-arloko eskumena duen saileko sailburuaren aginduek administrazio-bideari amaiera ematen diote eta administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan inpugnatu ahal izango dira.

4. artikulua.– Eginkizunak.

Hona hemen Erregistroaren eginkizunak:

1.– Indarreko araudiaren arabera, Erregistroan sartu beharrekoak diren egintzak kalifikatzea, inskribatzea eta egiaztatzea.

2.– Derrigorrezko liburuak gaitu eta legeztatzea.

3.– Urteko kontuen gordailua jasotzea.

4.– Fundazioen izenen arteko berdintasunik ez dagoela adierazten duten egiaztagiria ematea.

5.– Bere eskumeneko gaiei buruzko kontsultak argitzea.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeak, Erregelamendu honek edo berau garatzeko arauak agintzen dioten beste edozein eginkizun.

II. KAPITULUA

ERREGISTROAREN ERAGINKORTASUNA

5. artikulua.– Erregistroaren eraginkortasuna.

Legezketasunean, legitimazioan, lehentasunean, traktu jarraian eta publizitate material eta formalean oinarritzen da Erregistroaren eraginkortasuna.

6. artikulua.– Inskripzioen izaera.

1.– Erregistroan inskribatzea derrigorrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean, lege mailako bestelako xedapenetan edo Erregelamendu honetan hala xedatzen bada.

3.– A los efectos de determinar la Sección correspondiente cuando existieren dudas sobre la clasificación de una fundación se estará a lo expresado por la voluntad del fundador en la Carta fundacional o estatutos.

4.– Dentro de cada Sección se abrirá una subsección aparte en la que se inscribirán las delegaciones o sedes radicadas en el País Vasco que establecieron aquellas fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la Ley de Fundaciones del País Vasco, según lo dispuestos en la Disposición adicional Primera de la misma.

Artículo 3.– Del Departamento competente en materia de justicia.

1.– Corresponde al Consejero o a la Consejera competente en materia de justicia dictar las resoluciones relativas a las inscripciones de constitución, fusión y extinción de fundaciones, así como las de modificación estatutaria.

2.– Corresponde al Director o a la Directora de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento competente en materia de justicia el dictado de las demás resoluciones relativas a las inscripciones, así como las que procedan en relación a las demás funciones del Registro.

3.– Las Órdenes del Consejero o de la Consejera del Departamento competente en materia de justicia agotan la vía administrativa y serán impugnables ante la Jurisdicción contenciosa administrativa.

Artículo 4.– Funciones.

El Registro tendrá las siguientes funciones:

1.– Calificar, inscribir y certificar los actos que según la normativa vigente deban acceder a dicho Registro.

2.– Habilitar y legalizar los Libros obligatorios.

3.– Recibir el depósito de las cuentas anuales.

4.– Expedir certificaciones sobre la denominación no coincidente de las fundaciones.

5.– Contestar las consultas sobre las materias que sean de su competencia.

6.– Cualquier otra función que le atribuyan la Ley de Fundaciones del País Vasco, este Reglamento o sus normas de desarrollo.

CAPÍTULO II

EFICACIA REGISTRAL

Artículo 5.– Eficacia del Registro.

La eficacia del Registro está definida por los principios de legalidad, legitimación, prioridad, tracto sucesivo, publicidad material, y publicidad formal.

Artículo 6.– Carácter de las inscripciones.

1.– La inscripción en el Registro será obligatoria cuando así lo disponga la Ley de Fundaciones del País Vasco, otras disposiciones con rango de ley, o el presente reglamento.

2.– Fundazioen eratze-eskritura inskribatzea ezinbesteko baldintza izango da nortasun juridikoa lortzeko.

3.– Fundazioaren gobernu-organoak ezinbestez inskripzioak gauzatu beharko ditu, hiru hilabeteko epean, inskribatu beharreko egintzak bukatu eta irmo bihurtzen direnetik aurrera; hala egiten ez badu, erantzukizunak eska dakizkioke.

4.– Eratze-egintza erregistratzeko beharra fundazioaren eratze-eskritura ematen den momentutik sortuko da.

7. artikulua.– Erregistroaren izaera arautua.

Ezin izango zaio inskripzioa ukatu inskriba daitekeen edozein egintzari, baldin eta legedian eta aplikatzeakoak diren beste xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta erregistratu beharreko datu guztiak jasotzen baditu, araudi horietan ezarritakoaren arabera.

8. artikulua.– Legezketasuna.

Inskribatu beharreko agiriak kalifikatu egingo dira, eta horretarako, kontuan hartuko da agirien itxuraren legezketasuna, agiriak eman nahiz sinatzen dituztenen legitimazioa, eta edukiaren, agirien ondorioen eta Erregistroko idazpenen balioa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

9. artikulua.– Legitimazioa.

1.– Erregistroko idazpenak zehatzak eta baliozkoak direla jotzen da. Eragingarriak izango dira harik eta zehaztasun-ezaren edo baliogabetasunaren adierazpena inskribatzen ez den arte.

2.– Zehaztasun-eza nahiz baliogabetasuna adierazteak ez die uste oneko hirugarrenek Erregistroaren arabera eskuratutako eskubideei kalterik eragingo.

3.– Inskribatzeak ez ditu legeen arabera baliorik ga-beak diren egintzak baliozkotzen.

10. artikulua.– Lehenetasuna.

1.– Zernahi tituluren prebentziozko idazpena edo inskripzioa egiten bada, ezingo da egun bereko nahiz lehenagoko beste titulurik inskribatu, haren kontrakoa edo harekiko bateraezina baldin bada.

2.– Erregistroko eragiketak agiriak aurkezten diren hurrenkeraren arabera egingo dira, eta Erregistroan aurrena sartzen diren agiriek lehenetasuna izango dute geroago sartzen direnekiko.

11. artikulua.– Traktu jarraia.

1.– Fundazio bati buruzko egintzak inskribatzeko, fundazioa bera inskribatuta egon beharko da aurretik.

2.– Lehendik eginda dauden egintzen aldaketa edo iraungitzea inskribatu ahal izateko, egintza edo kontratu horiek inskribatuta egon beharko dute aurretik.

3.– Fundazioaren gobernu-organoak, ahaldunek nahiz ordezkariak egindako egintzak inskribatu ahal izateko, haiek ere inskribatuta egon beharko dute aurretik.

2.– La inscripción de la escritura de constitución de las fundaciones es un requisito necesario para la adquisición de la personalidad jurídica.

3.– El órgano de gobierno de la fundación está obligado a promover las inscripciones en el plazo de tres meses desde que hubieran concluido y adquirido firmeza los actos objeto de inscripción, incurriendo en responsabilidad si así no lo hiciera.

4.– Cuando se trate de registrar el acto de constitución la obligación nacerá desde el otorgamiento de la escritura de constitución fundacional.

Artículo 7.– Carácter reglado del Registro.

No se podrá denegar la inscripción de cualquier acto inscribible mientras reúna los requisitos establecidos por la Ley y demás disposiciones aplicables y contenga todos los datos que han de ser registrados, según lo establecido en dicha normativa.

Artículo 8.– Legalidad.

Los documentos sujetos a inscripción serán sometidos a calificación que comprenderá la legalidad formal, así como la legitimación de los que los otorgan o suscriben y la validez del contenido, de lo que resulta de ellos y de los asientos del Registro, de acuerdo con la legislación vigente.

Artículo 9.– Legitimación.

1.– Los asientos del Registro se presumen exactos y válidos. Producirán todos sus efectos mientras no se inscriba la declaración de su inexactitud o nulidad.

2.– La declaración de inexactitud o nulidad no perjudicará los derechos de terceros de buena fe adquiridos conforme al contenido del Registro.

3.– La inscripción no convalida los actos o contratos que sean nulos con arreglo a las Leyes.

Artículo 10.– Prioridad.

1.– Inscrito o anotado preventivamente en el Registro cualquier título, no podrá inscribirse o anotarse ningún otro de igual o anterior fecha que resulte opuesto o incompatible con él.

2.– Las operaciones registrales se practicarán según el orden de presentación de los documentos siendo preferentes los que accedan primeramente al Registro sobre los que se presenten con posterioridad.

Artículo 11.– Tracto Sucesivo.

1.– Para inscribir actos relativos a una fundación será precisa la previa inscripción de la misma.

2.– Para inscribir actos modificativos o extintivos de otros otorgados con anterioridad será precisa la previa inscripción de éstos.

3.– Para inscribir actos otorgados por miembros del órgano de gobierno fundacional, apoderados o delegados, será precisa la previa inscripción de éstos.

4.– Gobernu-organoko, Batzorde Eskuordetuko edo Batzorde Betearazleko kideen, eta Patronatuko kide delegatuen izendapena eta kargu-uztea inskribatu ahal izateko, lehendik hartutako erabakiek inskribatuta egon beharko dute, halakorik balego.

12. artikulua.– Publizitate materiala.

1.– Erregistroko idazpenen edukia denek ezagutzen dute, eta horren berri ez izana ez da aintzat hartuko.

2.– Inskribatu beharrekoak izanik inskribatu ez diren egintzek ez dute eragingo uste oneko hirugarrenengan. Hirugarrena uste onekoa jotzen da inskribatu gabeko egintza ezagutzen zuela frogatzen ez den arte.

3.– Inskribatzeko eginbidea betetzen ez duenak ezingo du inskribatu ez izana aitzakiatzat azaldu.

13. artikulua.– Publizitate formala.

1.– Erregistroa publikoa da, bere edukia ezagutzeko interes legitimoa duten guztientzat. Publizitatea datu-pertsonalak babesteko indarreko araudiaren baldintzen arabera egingo da.

2.– Interes hori egiaztatzeke, nahikoa izango da eskabidea aurkeztea, betiere eskatzen diren datuak hauek badira: fundazio jakin baten inskripzio-ebazpena, izena, xedea eta helbidea.

3.– Aurreko atalean aipatutako datuak barik beste batzuk eskatzen direnean, eskatzaileak interes legitimoa alegatu eta behar bezala justifikatu beharko du.

4.– Edozein eratako agintari administratibo eta judizialek Erregistroko edozein daturi buruzko informazioa eskuratu ahal izango dute, betiere euren eginkizunak betetzeko beharrezkoa bada.

14. artikulua.– Erregistroko publizitate-bideak.

1.– Erregistroko publizitatea idazpenen edukia zientzaren bidez, jakinarazpen-ohar soilez edo Erregistroko agirien kopia konpulsatuen bidez egingo da, eskatzaileak eskatzen duenaren arabera.

2.– Ziurtagiriak bakarrik hartuko dira agiri-publikotzat. Egiaztatzea da Erregistroko idazpenak modu frogagarrian erakusteko bide bakarra.

3.– Erregistroko idazpenen ziurtagiria eta jakinarazpen-ohar soila edo Erregistroan gordetako agirien kopia konpulsatua hamar eguneko epean emango dira, eskabidea egiten denetik aurrera.

4.– Erregistroko edukia edozein eratako publizitatearen eskabideak idatziz egingo dira, Erregistroko arduradunari zuzenduta; bertan, eskabidearen arrazoiak azalduko dira eta eskatutako datuak aurkitzeko lagungarriak izan daitezkeen argibide guztiak emango dira. Emandako informazioa nahikoa ez bada, Erregistroak

4.– La inscripción del nombramiento y cese de miembros del órgano de gobierno, de la Comisión delegada o ejecutiva, así como de Patronos delegados, requerirá la previa inscripción de los acuerdos anteriores que, en su caso, se hubieran producido.

Artículo 12.– Publicidad material.

1.– Se presume que el contenido de los asientos del Registro es conocido por todos, no pudiéndose invocar su ignorancia.

2.– Los actos sujetos a inscripción no inscritos no producirán efectos en relación a terceros de buena fe. La buena fe del tercero se presume en tanto no se pruebe que conocía el acto sujeto a inscripción y no inscrito.

3.– No se podrá invocar la falta de inscripción en su favor por aquél que incurrió en su omisión.

Artículo 13.– Publicidad formal.

1.– El Registro es público para todos quienes tengan interés legítimo en conocer su contenido. La publicidad se ajustará a los requisitos establecidos en la normativa vigente de protección de datos de carácter personal.

2.– Dicho interés se presume por el solo hecho de la presentación de la solicitud cuando se trate de los datos registrales de una determinada Fundación referentes a las resoluciones de inscripción, denominación, finalidad, y domicilio.

3.– Cuando se trate de datos registrales diferentes a los señalados en el apartado anterior, será preciso que el petionario alegue un interés legítimo que habrá de justificar suficientemente.

4.– Las autoridades administrativas y judiciales de cualquier orden, cuando el ejercicio de sus funciones así lo requiera, pueden obtener información sobre cualesquiera de los datos obrantes en el Registro.

Artículo 14.– Medios de publicidad registral.

1.– La publicidad del Registro se llevará a cabo mediante certificaciones del contenido de los asientos, por nota simple informativa o copia compulsada de los documentos obrantes en el Registro, según lo solicite el petionario.

2.– Sólo las certificaciones tendrán la consideración de documentos públicos. La certificación es el único medio de acreditar fehacientemente el contenido de los asientos del Registro.

3.– La certificación y la nota simple informativa de los asientos del Registro, o la copia compulsada de los documentos archivados o depositados, se expedirán en el plazo de 10 días desde su solicitud.

4.– Las solicitudes de cualquier medio de publicidad registral deberán hacerse por escrito dirigido al Encargado o Encargada del Registro expresando los motivos que suscitan la petición y aportando todas las circunstancias que conozca a fin de facilitar la búsqueda de los datos solicitados. Si los elementos proporciona-

bertan behera utziko du publizitate-prozesua, eta hala jakinaraziko dio interesatuari.

5.– Erregistroko arduradunak zalantzak baditu eskatutako datuen publizitateari buruz, Babeslaritzari azalduko dizkio, eta honek egokiena erabakiko du.

III. KAPITULUA ERREGISTROAREN FUNTZIONAMENDUA

1. ATALA LIBURUAK

15. artikulua.– Liburuak.

1.– Erregistroan honako liburu hauek guztiak egongo dira:

- a) Fundazioen inskripzio-liburua.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen eragin-eremutik kanpoko fundazioen ordezkartzen inskripzio liburua.
- c) Gaitze eta legeztatzen fitxategi-liburua.
- d) Kontu-gordailuen fitxategi-liburua.

2.– Halaber, Erregistroa zuzen kudeatzeko egokitzat jotako fitxategi eta liburu osagarriak ere prestatu ahal izango dira.

3.– Arau honetan aipatzen diren liburu guztiek behar bezala beteta egon beharko dute, eta orri bakoitzean Erregistroaren zigilua eraman beharko dute.

4.– Liburu horietako idazpenak idazmakina nahiz prozedura informatikoz egin beharko dira, eta, nolana-hi ere, Erregistroaren izaera ezabagaitza ziurtatu beharko da.

16. artikulua.– Inskripzio-liburuei buruzko arau orokorrak.

1.– Inskripzio-liburuak orri mugikorrez osatuko dira. Inskripzio-liburuaren goi-eskuineko ertzean orriaren zenbakia ezarriko da, eta fundazioen inskripzio-liburuetan dagokion liburukia ere adieraziko da. Fundazio bati dagokion orria erabat betetzen denean, beste bat prestatuko da zenbaki berarekin eta alfabetoko lehenengo letrarekin, eta gainontzeko letrak hurrengo orrientzat utziko dira.

2.– Inskripzio-orria lau zutabe bertikaletan banatuko da. Lehenengo zutabearen tarte bat utziko da, bertan ertzeko oharrak ezartzeko —nahi izanez gero eskuz—. Beste hiruretan eguna, idazpen-zenbakia eta idazpena bera adieraziko dira, eta gainaldean, honako hauek adieraziko dira: «Ertzeko oharrak», «Eguna», «Idazpen-zenbakia» eta «Inskripzio-idazpena».

17. artikulua.– Fundazioak eta fundazioen ordezkartzak inskribatzeko liburuak.

1.– Fundazioak inskribatzeko liburuan, fundazioak identifikatzeko honako datu hauek jasoko dira: funda-

dos fueren insuficientes el Registro podrá suspender su expedición, notificándolo así al interesado.

5.– En el caso de que el Encargado o Encargada del Registro tuviere alguna duda sobre la publicidad de los datos solicitados, planteará dicha cuestión al Protectorado que resolverá lo procedente.

CAPÍTULO III FUNCIONAMIENTO DEL REGISTRO

SECCIÓN 1.ª LIBROS

Artículo 15.– Libros.

1.– En el Registro se llevarán los siguientes libros:

- a) Libro de inscripción de Fundaciones.
- b) Libro de inscripción de delegaciones de fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la Ley de Fundaciones del País Vasco.
- c) Libro fichero de habilitaciones y legalizaciones.
- d) Libro fichero de depósito de cuentas.

2.– Asimismo, podrán llevarse los Libros y ficheros auxiliares que se juzgue conveniente para la adecuada gestión del Registro.

3.– Todos los Libros a que se refiere este precepto estarán debidamente diligenciados y llevarán en cada uno de sus folios el sello del Registro.

4.– Los asientos que se practiquen en estos Libros se extenderán a máquina o por procedimientos informáticos, debiendo quedar asegurado, en todo caso, el carácter indeleble del Registro.

Artículo 16.– Normas comunes sobre los Libros de Inscripciones.

1.– Los Libros de inscripciones estarán compuestos por hojas móviles. En el ángulo superior derecho de los mismos se hará constar el número de hoja y en el de inscripción de Fundaciones también el tomo correspondiente. Agotada la hoja destinada a una Fundación se abrirá a continuación otra con igual número, seguido de la primera letra del alfabeto, destinándose las restantes letras para hojas sucesivas.

2.– La hoja registral se dividirá en cuatro columnas verticales. La primera de ellas contendrá un margen para insertar en él las notas marginales, que podrán practicarse manualmente. En las otras tres columnas se hará constar la fecha, el número de asiento y la extensión del mismo, haciéndose constar en su parte superior los epígrafes «Notas marginales», «Fecha», «Número de asiento» y «Asientos de inscripción».

Artículo 17.– Libros de inscripción de fundaciones y de delegaciones de fundaciones.

1.– En el Libro de inscripción de fundaciones deberán hacerse constar los siguientes datos para la identi-

zioaren izena, helbidea, jardute-eremua, fundazioaren sekzioa, xedea, eta hasierako diru-hornidura. Inskripzio-liburuen goi-eskuineko ertzean fundazioaren inskripzio-zenbakia ezarriko da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen eragin-eremutik kanpoko fundazioen ordezkariak inskripzio liburuan, fundazioak identifikatzeko honako datu hauek jasoko dira: fundazioaren izena, helbidea, jardute-eremua, fundazioaren xedea eta erregistroko datuak.

18. artikulua.– Gaitze eta legeztatzen fitxategi-liburua.

Gaitze eta legeztatzen fitxategi-liburua fundazio bakoitzarentzako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, datu hauek adieraziko dira: fundazioaren izena eta inskripzio-zenbakia, gaitu nahiz legeztatutako liburu mota eta gaitu edo legeztatutako eguna. Hala badagokio, liburua epez kanpo aurkeztu den ere jasoko da.

19. artikulua.– Kontu-gordailuen fitxategi-liburua.

Kontu-gordailuen fitxategi-liburua fundazio bakoitzarentzako fitxa bidez eramango da. Fitxa horietan, hain zuzen ere, datu hauek adieraziko dira: fundazioaren izena eta inskripzio-zenbakia, gordailututako dokumentu-mota, gordailutze-eguna eta dagokion ekitaldi ekonomikoa.

2. ATALA IDAZPENAK

20. artikulua.– Motak.

1.– Erregistroko liburuetan honako idazpen-mota hauek egingo dira: a) Inskripzioak, b) Prebentziozko idatzoharrak, c) Baliogabetzeak, d) Ertzeko oharrak.

2.– Erregistroko arduradunak bere sinadurarekin eta zigiluz baimenduko ditu egiten diren idazpenak.

21. artikulua.– Idazpenak nola egin.

1.– Idazpenak labur egingo dira, inskribatu den agiria dagoen agiritegiari erreferentzia eginez.

2.– Inskribatu beharreko agiriak idatzita dauden hizkuntzan egingo dira Erregistroko idazpenak; Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat izango da.

3.– Idazpenak bata bestearen jarraian egingo dira, eta idatzi gabe utzitako tarte zuriak marra batez baliogabetuko dira.

4.– Idazpenetan pertsona fisikoaren nortasuna agerrarazi nahi denean, haren izen-abizenak adieraziko dira. Pertsona juridikoak identifikatzeko, entitatearen izena adieraziko da.

ficación de las fundaciones: denominación de la fundación, domicilio fundacional, ámbito territorial de actuación, sección de la fundación, fines fundacionales y dotación inicial. Asimismo, en el ángulo superior derecho de la hoja se hará constar el número de inscripción de la fundación.

2.– En el Libro de inscripción de delegaciones de fundaciones comprendidas fuera del ámbito de aplicación de la Ley de Fundaciones del País Vasco deberán hacerse constar los siguientes datos para la identificación de la fundación: denominación de la fundación, domicilio fundacional, ámbito territorial de la fundación, fines fundacionales y sus datos registrales.

Artículo 18.– Libro Fichero de Habilitaciones y Legalizaciones.

El Libro fichero de habilitaciones y legalizaciones se llevará mediante fichas individualizadas para cada Fundación, en las que se hará constar su denominación y su número de inscripción, la clase de libro habilitado o legalizado y la fecha de habilitación o legalización. En su caso, se hará constar si el libro ha sido presentado fuera de plazo.

Artículo 19.– Libro Fichero de Depósito de Cuentas.

El Libro fichero de depósito de cuentas se llevará mediante fichas individualizadas para cada Fundación en las que se hará constar su denominación y su número de inscripción, tipo de documento depositado, la fecha de depósito, y ejercicio económico al que corresponde.

SECCIÓN 2.ª ASIENTOS

Artículo 20.– Clases.

1.– En los Libros de Registro se practicarán las siguientes clases de asientos: a) Inscripciones, b) Anotaciones preventivas, c) Cancelaciones, d) Notas marginales.

2.– El Encargado o Encargada del Registro autorizará con su firma y sello los asientos extendidos.

Artículo 21.– Extensión de los asientos.

1.– La extensión de los asientos se hará de forma sucinta, remitiéndose al archivo correspondiente donde conste el documento objeto de inscripción.

2.– Los asientos del Registro se extenderán en la lengua oficial de la Comunidad Autónoma del País Vasco en que aparezcan redactados los documentos objeto de inscripción.

3.– Los asientos se practicarán a continuación unos de otros, inutilizando los espacios en blanco de las líneas que no fueran escritas por entero, mediante una raya.

4.– Cuando en los asientos haya de hacerse constar la identidad de una persona física, se consignarán su nombre y apellidos. Para la identificación de las personas jurídicas se hará constar la denominación social de la entidad.

22. artikulua.– Idazpenen antolaketa.

1.– Inskripzio-liburuetan egindako inskripzioak eta horien ezeztapenak idazpenentzat prestatutako eskui-neko zutabeen egingo dira, bata bestearen jarraian, eta hurrenez hurren zenbaki bidez zerrendatuko dira.

2.– Prebentziozko idatzoharrak eta horien ezeztapenak inskripzioak egiteko eta horiek ezeztatzeke ezarritako eran egingo dira, eta letren bidez adieraziko dira alfabetoaren hurrenkeraren arabera.

3.– Ertzeko oharra erregistro-orriaren ezkerrean egingo dira, eta argi eta labur adieraziko da inskripzioarekin zein harreman duten.

23. artikulua.– Agiriak aurkeztea.

1.– Inskribatu behar diren egintzen egiaztapenak Erregistroan aurkeztuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduetako bat erabiliz.

2.– Egintza horiek inskribatzeko eskabidean Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 70. artikuluan ezarritako baldintzak jaso beharko dira.

24. artikulua.– Idazpenen edukia.

Inskribatzeko, ezeztapena egiteko nahiz prebentziozko oharra egiteko idazpen orok, gutxienez, honako zehaztasun hauek izan behar ditu:

a) Agiri mota eta izaera.

b) Agiria non eta noiz egin den.

c) Baimentzeari edo egiteari buruzko datuak, baime-na ematen duen notarioaren izena, eta agiri publikoen kasuan, horiek ematen dituen epaile edo funtzionarioaren izena; bestela, agiri pribatuak sinatzen dituzten izenak.

d) Idazpena egin den eguna eta Erregistroaren arduradunaren sinadura.

25. artikulua.– Hutsen zuzenketa.

1.– Inskripzioetan, ezeztatzeetan, prebentzio-idazpenetan nahiz ertzeko oharretan egindako akatsak ezingo dira zuzenketa, zirriborro edo marra bidez zuzendu. Horretarako, beste idazpen bat egingo da, eta bertan garbi adierazi beharko da zein den zuzendu den akatsa, eta idazpenak hasiera-hasieratik nolakoa izan behar zuen.

2.– Ertzeko oharren zuzenketa, zuzentzen diren oharretatik ahalik eta gertuen egingo da.

3.– Erregistroko idazpenen bat zuzentzen denean, idazpen berrira jotzeko behar adinako oharra egingo da idazpen okerraren ertzean.

Artículo 22.– Ordenación de los asientos.

1.– Las inscripciones y sus cancelaciones, extendidas en los Libros de inscripciones, se practicarán en la columna derecha destinada a los asientos, a continuación una de otra y se enumerarán de forma correlativa mediante guarismos.

2.– Las anotaciones preventivas y sus cancelaciones se practicarán en la forma señalada para las inscripciones y sus cancelaciones, si bien se señalarán por letras siguiendo un riguroso orden alfabético.

3.– Las notas marginales se practicarán en el margen izquierdo de la hoja registral y se expresará clara y sucintamente la relación que tengan con la inscripción registral a la que vengan referidas.

Artículo 23.– Presentación de documentación.

1.– Los documentos acreditativos de los actos objeto de inscripción podrán ser presentados en el Registro por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La instancia solicitando la inscripción de dichos actos deberá contener los requisitos dispuestos en el artículo 70 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 24.– Contenido de los asientos.

Los asientos de inscripción, cancelación o anotación preventiva han de contener, al menos, las siguientes circunstancias:

a) Naturaleza y clase de documento.

b) Lugar y fecha del documento.

c) Los datos de su autorización o expedición, así como el nombre del Notario autorizante o el Juez o funcionario que lo expide en el caso de los documentos públicos, o el nombre de las personas que suscriben los documentos privados.

d) Fecha del asiento y firma del Encargado o Encargada del Registro.

Artículo 25.– Rectificación de errores.

1.– Los errores cometidos en cualquier inscripción, cancelación, anotación preventiva o nota marginal, no podrán rectificarse mediante enmiendas, tachas o raspaduras. La rectificación se realizará mediante la extensión de un nuevo asiento al que se otorgará un número nuevo y en el que se expresará con claridad cuál es el error rectificado, así como los términos en que el asiento debiera haberse practicado originariamente.

2.– La rectificación de notas marginales se extenderá lo más cerca posible de las rectificadas.

3.– Cuando se haya rectificado un asiento registral, se extenderá al margen del asiento erróneo una remisión suficiente al nuevo asiento.

4.– Inskripzio, prebentzio-idazpenoharpen, ezeztatze nahiz ertzeko oharren bat zuzendutakoan, eragindako gaiari buruzko beste idazpenak ere zuzendu beharko dira.

Zuzenketa hori ertzean ohar bat ipiniz egingo da.

3. ATALA KALIFIKAZIOA

26. artikulua.– Idazpenak egiteko epea.

1.– Agiriak aurkeztearen ondorioz Erregistroan egin beharreko inskripzioak eta gainontzeko idazpenak sei hileko epean ebatzi eta jakinarazi beharko dira.

2.– Tituluak zuzendu daitekeen okerren bat badu, hilabeteko epea emango da hori zuzentzeko, eta izapide hori Erregistroan jasoko da ertzeko ohar baten bidez. Horrelakoetan, ebazteko epea eten egingo da eta zuzenketa egiteko agiriak aurkezten diren momentuan hasiko da berriz.

3.– Justizia-arloan eskumena duen sailaren erregistroan eskabidea aurkezten den egunetik hasiko dira epeak.

27. artikulua.– Kalifikazioaren eremua.

1.– Erregistroko kalifikazioa dekretu honen 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

2.– Inskriba daitezkeen agirien forma aldetiko legehutsegiteak izango dira agiri horien baliagarritasunari eragiten dietenak, horien itxurak nolakoa izan behar duen erabakitzen duten arauei jarraiki, baldin eta hutsegite horiek aurkeztutako agirietan gertatzen badira.

Orobat, aintzat hartuko dira honako hauek: inskripzioak nahitaez jaso behar duen zernahi gorabehera aipatu gabe utzi edo behar bezain argi azaldu ez izana, inskribatu beharreko agiriak eman dituztenen legitimazioa eta agiri horien edukiaren balioa.

28. artikulua.– Kalifikazioa.

1.– Erregistroaren kalifikazioak inskripzio-ondorioak izango ditu soil-soilik. Kalifikazio horren ondorioz, eskatutako inskripzioa gauzatu, akatsak zuzendu edo, bestela, inskripzioa ukatu egingo da.

2.– Kalifikazioak globala eta bateratzailea behar du izan.

3.– Kalifikazioa arrazoitua izango da.

29. artikulua.– Kalifikazioaren ondorioak.

1.– Tituluak akatsik ez badu, inskribatuko egingo da, eta, tituluarekin batera, inskripzio-eguna adierazten duen eginbidea bidaliko da, behar bezala zigilatuta eta sinatuta.

2.– Tituluak konponduezinako akatsik badu, inskripzioa ukatuko da —arrazoiak emanez—.

4.– Rectificada una inscripción, una anotación preventiva, una cancelación o una nota marginal, se rectificarán también el resto de los asientos relativos a las materias afectadas.

Dicha rectificación se realizará mediante la extensión de la correspondiente nota marginal.

